

## Euskararen egoera Justizia Administrazioan

Epaitegi edo auzitegietara hurbiltzen den edonork sumatu dezake esparru honetan euskararen erabilera ez dagoela oraindik normalizatua. Baina zeintzuk dira egoera honen kausak? Ba al da gaur egungo araudiarekin normalizazioa lortzerik? Egiten al da zerbait egoera aldatzeko? Jarraian euskarak lege-ikuspuntutik Justizia Administrazioan zein leku duen azaltzen saiatuko naiz, eta normalizazioaren helburuarekin azken urteetan egin diren ekimen interesgarri batzuk ere aipatuko ditut.

### 1- Euskararen lege-esparru orokorra:

Euskarak Justizia Administrazioan duen tokia aztertzeko, beharrezkoa da alde zurretik hizkuntzaren estatusaren inguruko gogoeta labur bat egitea. Honela, euskararen lege-esparru orokorra azalduta, Justizia Administrazioari dagokion araudia testuinguru orokor honen barnean ulertu ahal izango dugu.

Lehenik eta behin, hizkuntzaren lege-esparru orokorraz aritzeko, kontuan eduki behar dugu euskararen eremua hainbat lurralde egituratan dagoela banatuta, eta horietako bakoitzean hizkuntzaren lege-egoera desberdina dela. Espainiar estatuaren kasuan, euskara ofiziala da Euskal Autonomi Erkidegoan (EAEn) eta Nafarroako iparraldean.

Ofizialtasunaren lehen oinarria [Espainiar Konstituzioan](#) aurki dezakegu. Izan ere, honela dio 3.2 artikulua:

*Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritik.*

Konstituzioak emandako aukera hori [EAE-n 1979.urteko Autonomia Estatutuaren](#) 6. Artikuluaren bidez baliatu da. Artikulu horrek euskararen ofizialtasuna aitortzen du. Honez gain, ofizialtasunak legezko garapena izan du EAEn Legebiltzarrak onartutako [10/1982 Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen](#) bidez (Lege honek ofizialtasunaren edukia jasotzen du, eta euskaldunoi aitortzen dizkigun eskubide ugariaren artean, gaiaren inguruan bereziki interesgarria den puntu bat dauka 9. artikuluan. Honela dio puntu horrek:

*Epailaritzarekiko harremanetan, herritar guztiek aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.*

Nafarroaren kasuan ez da Konstituzioak irekitako aukera era berean probestu, izan ere [Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari Buruzko Legearen](#) 9. Artikuluan Nafarroako hizkuntza ofiziala gaztelera dela adierazten da, eta euskararen ofizialtasuna eskualde batzuetara mugatzen da. Eskualde horien zehaztapena, eta oro har euskararen estatusaren arauketa, [18/1986 Euskarari buruzko Foru-Legearen](#) bidez egin da.

Ondorioz, Nafarroa hiru eremutan banatu da (euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna) eta Justizia Administrazioarekiko harremanetan euskaraz jarduteko eskubidea iparraldeko eremuan dago bermatua. Hau 18/1986 Legeko 14. artikuluan jasotzen da:

*Justizia Administrazioarekiko harremanetan, hiritar guztiek beraiek hautatutako hizkuntza ofiziala erabili ahalko dute, indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera.*

Iparraldeari dagokionez, Frantziar estatuan frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra (honela xedatzen du **1958. urteko Konstituzioak**), eta beste hizkuntzen inguruko legerik badagoen arren (1951ko Deixonne Legea), ez du Justizia Administrazioaren arloan beste hizkuntza hauen erabilerari buruzko aipamenik ere egiten. Hala ere, bada baikor izateko arrazoirik ere, azkenaldian hizkuntza gutxituen aitortzari buruzko lege-proposamen bat eztabaidatzen hari delako, eta lege-proposamen horrek ofizialtasuna aitortzeaz ezer esaten ez badu ere, bide horretan aurrera pauso nabarmenak izan daitezkeen neurriak jasotzen ditu.

Behin lege-esparru orokorra zein den ikusita, EAeko eta Nafarroako Justizia Administrazioetan euskararen presentzia arautzen duten lege eta arauak aztertuko ditut. Iparraldearen kasua bereziki larria da; dirudienez, botere legegilearen aldetik planteatu ere ez delako egiten frantsesa ez den hizkuntza batean jardun ahal izatea.

## **2- Justizia Administrazioan hizkuntzaren inguruan dagoen araudia:**

Atal honekin hasteko espainiar estatu osoko auzitegi eta epaitegiak antolatzen dituen **6/1985 Botere Judizialaren Lege Organikoa** aipatuko dut. Lege honetako 231. artikuluan, epaitegietako funtzionarioek euren jardunak dagokion autonomia erkidegoko hizkuntza koofizialean egin ahal izango dituztela xedatzen da, beti ere aldeetako batek aurka egiten ez badu. Honez gain, artikulua bere 3. puntuan jardun judizialak izango diren autonomia erkidegoko hizkuntza koofiziala erabiltzeko aukera aitortzen die alderdi eta lekukoei. Ikusi daitekeenez, euskara erabiltzeko aukera dago, baina ofizialtasunak ez dio gaztelaniaren pareko estatusik eman, nahikoa delako aldeetako baten borondatea funtzionariak gazteleraz egitera behartzeko.

Gainera, Lege bereko 341., 483. eta 530. artikuluek Justizia saileko lanpostu desberdinak betetzeko hizkuntza koofizialen ezagutza merezimendutzat hartzen dute, baina ez derrigorrezko ukanbehartzat. Honek normalizazio ezaren kausa argi bat ikusarazten du. Justizia Administrazioako pertsonala ez bada euskalduna, nekez izango da Justizia Administrazioa bere jarduna euskaraz eskaintzeko gai.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Justiziaren eremuan euskararen normalizazioa lortzeko hainbat arau eman dira. Hauen artean aipagarriena **117/2001 Dekretua** izan daiteke, Justizia Administrazioako hizkuntza normalkuntzarako neurriak finkatzen dituena. Dekretu honek autonomia erkidegoko egiturara transferitutako langileei eragiten die soilik (ofizial, laguntzaile, agente judizial, eta auzitegiko medikuak) eta 3 arlotako neurriak jasotzen ditu; hizkuntza eskakizunen esleipenak, euskara ikastaroak eta euskara erabiltzeko planak.

Dekretu hau osatu nahian, Justizia Administrazioaren Hizkuntza Normalkuntza Plan Nagusia burutu zen 2004. urtean, egoeraren diagnostia egin eta etorkizunerako erronkak zehazteko helburuarekin. Planaren emaitza ondorengo helburuak finkatzea izan zen: euskarari ematen zaion garrantzia areagotzea, herritar eta profesionalak euskarazko zerbitzuak erabiltzeko estimulatu eta pertsonalaren, abokatuen eta bulego judizialeko agintedunen artean euskararekiko inplikazioa areagotu.

Urte batzuk geroago, 2008.ean hain zuzen ere, Jaurlaritzak [152/2008 Dekretua](#) onartu zuen. Estatuaren abokatuak, ordea, helegitea ezarri zion dekretuari. Helegite horri erantzunez, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak zenbait artikulua bertan behera utzi zituen. Besteak beste, euskaraz jakitea lanpostu berezi batzuetan soilik exiji daitekeela agintzen zuen epaiak, eta ez lanpostu generikoetan.

Azkenik, 2010. urteko ekainean [174/2010 Dekretua](#) onartu zen. Honen arabera, euskara meritu moduan baloratuko da lanpostu generikoetan. Honez gain, “behin-behineko zerbitzu erkideen barruan dokumentua bi hizkuntzetan egiteko aukera emateko moduko sistema erabiliko da, hizkuntza koofiziala erabiltzeko herritarrari aitortzen zaion eskubidea betetzeko helburuz”.

### **3- Euskara Epaitegietan erabiltzeko ekimenak:**

Orain arte euskarak Justizia Administrazioan duen egoera ikuspegi legal eta teoriko hutsetik aztertu dut, baina praktikan denok ezagutzen dugu normalizazio egoera lortzetik nahiko urrun gaudela. Normalizaziorako bide horretan erakunde publikoek hainbat ekimen jarri dituzte martxan eta jarraian garrantzitsuenak zerrendatzen saiatuko naiz.

Lehenik eta behin **Epainet** aplikazio informatikoa aipa daiteke. Jaurlaritzako Justizia-Salak bultzaturik, 2002. urtean bake-epaitegietan martxan jarri zen lanaren emaitza da. Aplikazio honen bidez helburu desberdinak lortzen dira: Lanaren kudeaketa hobetzea, idatzizko dokumentazioa bateratzea eta ahalik eta idatzizko dokumentu gehien euskaraz ere ateratzea, itzulpen automatikoen bitartez. Gaur egun, EAEko bake-epaitegien hiru laurdenek (% 76) instalatuta daukate Epainet eta, bake-epaitegi horiek elebitan atera ditzazkete dituzte ia dokumentu guztiak

Beste ekimen aipagarri bat **Justizia Saileko Euskara Batzordeak** aurrera daramana da. 1996. urtean eratu zen eta bere 1997. urtetik diardu agiri judizialak euskarara itzultzen. Batzorde honetako kide dira Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasleak, EHUko Zuzenbide Fakultatekoak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkariak, epaile euskaldunak, abokatu euskaldunak, Justizia Saileko euskara teknikari eta itzultzaileak eta UZEL.

Ekimen hauez gain Justizia Administrazioako pertsonala euskararen erabileran trebatzeko saioak ere burutzen dira EAEko epaitegietan. Ekimen hau bereziki interesgarria da, izan ere hizkuntzaren normalizaziorako beharrezkoa da pertsonala edozein jardun euskaraz egiteko gai izatea, eta egungo kontratazio sistemarekin pertsonala euskalduna izatea bermatu ezin daitekeenez, daudenek euren euskara hobetzea derrigorrezko bihurtzen da normalizazioaren alde pausoak ematen jarraitzeko.

#### **4- Ondorioak:**

Aurrez esandako guztia irakurri eta ondorioak ateratzen hasterakoan, Euskara Justizia Administrazioan duen egoerak kontraesan ugari sortzen dituela iruditzen zait. Alde batetik dirudienez EAEko administrazioaren kasuan aurrerapausoak emateko gaitasuna eta borondatea dago, baina gero pertsonalaren kontratazioa bezalako arlo garrantzitsuetan euskarak merezimendu soila izaten jarraitzen du, eta aurrez esan bezala, nekez eskaini dezake administrazioak euskarazko zerbitzu oso eta normalizatua euskaraz ez dakien pertsonalaren bidez.

Nafarroan eta Espainiar estatuko administrazio orokorraren kasuan egoera askoz ilunagoa da, normalizazioaren aldeko jarrera ez edukitzeaz gain, askotan normalizazio horren aurka egiten dutelako zuzenean (Legebiltzarreko Dekretuei helegiteak ezarriz adibidez). Eta zer esan Frantziar estatuaren kasuaz, non Justizia Administrazioan euskaraz jardutearen inguruan aipamenik ere ez duten egiten arauak.